

BERMEOKO ALDE ZAHARRA BIZIBERRITZEKO GAZTEE ZUZENDUTAKO 2017. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

IN-E 180/02-17

| | |
|---|--|
| UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA: | Beruala S.A. |
| INSTRUKTOREA: | Berualako teknikaria |
| BALORAZIO BATZORDEA: | Berualako organoetan ordezkariak duten alderdi politiko bakoitzeko zinegotzi bana (4) + Berualako teknikaria |
| XEDEA: | Herriko gazteen emantzipazio bidean laguntzeko etxebizitzaren alokairuak ordaintzen laguntzea 2017an. |
| KODEA: | Beruala S.A. diru-laguntza 2017 |
| AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU KOPURUA: | 70.000,00 €. Berualaren " Alde zaharra biziberritzekeko gazteei zuzendutako diru-laguntza programa " kontura finantzatuko da. |
| HELBURUA: | Bermeoko 18-35 urte bitarteko gazteei Bermeoko Alde Zaharrean etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea, emantzipazio bidean laguntzeko eta etxebizitzaren alokairua sustatzeko. |
| EPEA: | Eskariak 2017 amaite arte aurkeztu ahal izango dira, Bermeoko Erregistro Orokorreko Berhaz bulegoan . Ertzilla kalea 6-8. Eskariaren eragina: diru-laguntza onartuz gero, alokairuaren kontratua sinatu den egunetik (2017 baino lehenagoko kontratuetan, kontratua 2017ko urtarrilaren 1ean sinatu dela ulertuko da) izango du eragina, beti ere, alokairu kontratuak eskaria egiten den epean indarrean jarraituz gero. |
| BALORAZINO ERIZPIDE ZEHATZAK: | <p>1.- Alokaturako etxebizitza Bermeoko Alde Zaharrean egon behar da.</p> <p>2.- Alokaturako etxebizitza eskatzaileen ohiko bizitokia izan behar da, eta alokairu kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izan behar du. Tarte horretan, oinarri hauetan zehaztutako baldintza guztiak mantendu behar dira.</p> <p>3.- Etxebizitzaren hileko alokairuaren gehieneko prezioa honako hau izango da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 60 metro karratu erabilgarri arteko etxebizitzak: 400,00.- € ▪ 61-80 metro karratu erabilgarri arteko etxebizitzak: 450,00 .-€ ▪ 81 metro karratu erabilgarri baino handiagoak diren etxebizitzak: 500,00€ <p>4.- Diru-laguntza honen kontzeptutik kanpo gelditzean dira: garaje, komunitate eta administrazio gastuak, baita Ondasunen Higiezinaren gaineko zerga, nahiz eta kontratuan agertu. Alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada aurkezten horietako bakoitzaren hileroko justifikazioa kostu hori 30 eurokoa dela ulertuko da, eta kopuru hori kenduko da alokairu kontratuaren zenbatekotik (praktikan alokairuaren kopurua txikituko da).</p> |



5.- Alokairuen ordainketa bankuko helbideratze bidez egin beharko da.

ESKATZAILEAK:

Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak ez betetzea eta eskariak epez kanpo aurkeztea nahiko izango da ez onartzeko. Egindako deklarazioak benetako egoerekin bat ez etortzetik sortutako iruzurra, Tributu Iruzurtzat joko da. Laguntza eskaera aurkezten denetik eta lagundu daitekeen epe guztian (2017ko abendura arte), baldintza hauek bete behar dituzte:

- 1.- Norbanakoen kasuan: 18 eta 35 urte bitartean izatea.
- 2.- Beste pertsona batzuekin bizi direnak: Bizikidetzaren unitatearen kasuan, gutxienez bikotekide batek 18 eta 35 urte bitartean izatea.

**Diru-laguntza hauei dagokienez, bizikidetzaren unitatea honako hau izango da: kide biak adinez nagusiak diren bikotea (euren ardurapean adin txikikoak izan ala ez), edo adin txikikoak bere ardurapean dituen pertsona bakarra.*

*** Pisukideen artean harreman ekonomikorik ez badago, betekizunak betetzen dituen pisukide bakoitzak diru-laguntza eskaria aurkeztu ahal izango du. Kasu horretan, guztien artean lortutako diru-laguntzak ezin izango du pisuko gehienezko diru-laguntza gainditu.*

3.- Eskatzaileak edo bizikidetzaren unitateko kideetatik inork ez izatea bere jabetzako etxebizitzarik. Titular-kidetasuna edukiz gero, horren portzentajea %50ekoa edo txikiagoa izatea eta partaidetza hori balio katastralean 75.000,00 eurotik beherakoa izatea. Portzentaje hori eta katastro balioa handiagoak direnean, salbuespena izango da eskatzaileak etxebizitza hori ezin badu legez erabili.

4.- Bizikidetzaren unitateko pertsona guztiak etxebizitza horretan erroldatuta agertu beharko dira (laguntza eskatu baino lehen egiaztatu beharko dute). Kontratua sinatu baino lehen beste pertsona batzuk egongo balira bertan erroldatuta, jabea derrigortuta egongo litzateke horiei baja ematen udal erroldan.

5.- Gutxienez, bizikidetzaren unitateko pertsona bat Bermeon erroldatuta egotea bere bizitzako 3 urtetan edo azken urtean etenik gabe.

6.- Eskatzaileak gehienezko diru sarrera hauek edukitzea:

- 28.000,00€ arte urtean (gordin): eskatzailea pertsona bakarra denean.
- 39.000,00€ arte urtean (gordin): eskatzailea bizikidetzaren unitateko bada edo pisukideen arteko harreman ekonomikorik ez badago.

7.- Diru sarreraren osaketari dagokionez, amaitutako azken zerga ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da izan urtean 600,00 eurotik gorakoa.

8.- Etxebizitza partekatzen duten gazte guztiak izan daitezke onuradun, errentamendu kontratua guztiek sinatu eta gainontzeko beste baldintza guztiak betetzen badituzte. Kasu honetan, eskaerak banan-banan aztertu beharko dira eta alokairuaren prezioa kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da.

9.- Bizikidetzaren unitateko kide guztiek Bermeoko Udaleko zerga, tasa eta



| | |
|---|---|
| | <p>zehapenen ordainketa egunean izan beharko dute.</p> <p>10.- Onuradunen eta errentatzailearen artean ezin izango da odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailarainoko familia loturarik izan.</p> |
| <p>DIRUZ LAGUNGARRIA DEN KONTZEPTUA - PROGRAMA:</p> | <p>Diruz lagungarria den kontzeptua: Bermeoko Alde Zaharreen etxebizitza alokairua ordaintzen laguntzea Bermeoko gazteei.</p> <p>Etxebizitza horiek bete beharreko baldintzak:</p> <ol style="list-style-type: none">1.- Bizigarritasun baimena edukitzea.2.- Bainugelan dutxa edo bainuontzia egotea.3.- Ur bero sistema erabilgarria izatea bainugela eta sukaldeari zerbitzua emateko.4.- 220volt-eko instalazio elektrikoa izatea dagokion buletinarekin.5.- Ur edangarriaren hornidura izatea.6.- Sare orokorrera isurketa duen saneamendua izatea.7.- Kalerako aireztatzea edukitzea. <p>Berualako teknikariek edozein momentutan egiaztatu ahal izango dute aipatutako baldintzak betetzen direla.</p> <p>Diru-laguntza eskariak ez baditu eskatutako agiri guztiak formalizatzen, interesdunak 10 eguneko epea izango du akatsak zuzentzeko, Berualak egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Denbora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten zaiola ulertuko da.</p> |
| <p>PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:</p> | <p>Diru-laguntza emateko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra.</p> <p>Diru-laguntza eskaria, horretarako prestatutako udal inprimakian aurkeztuko da, datu guztiak ondo bete ondoren. Horrezaz gainera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren NAN edo egoitza txartelaren fotokopia konpultsatua. Adin txikikorik egonez gero, edo senidetasuna egiaztatzeko, Familia Liburuen fotokopia konpultsatua.▪ Indarrean dagoen 2017 urteko etxebizitzaren alokairu kontratuaren kopia eta hileko alokairuengatik ordaindutako frogagiriak.▪ Kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.▪ Estatu mailan etxebizitzaren baten jabe ez izatearen zinpeko adierazpena.▪ Etxebizitza baten titularkide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:<ul style="list-style-type: none">○ Eskrituraren fotokopia konpultsatua, non agertzen den ehuneko zenbateko jabetza duen.○ Katastro balioaren fotokopia konpultsatua○ Aurretiaz aipatutako ("eskatzaileak" 3. puntua) salbuespen egoerako frogagiria.▪ Eskatzaile guztien, eta bizikidetzaren unitateko kide guztien diru sarreraren egiaztagiria:<ul style="list-style-type: none">A) PFEZ aitortu duenak:<ul style="list-style-type: none">○ Azken ekitaldian aurkeztutako aitortuaren fotokopia.○ Zergapekoak ez diren prestazioak jaso badira, prestazio horien ziurtagiria.B) PFEZ aitortu ez duenak: |



- Ekitaldi horretan PFEZ aitorpena aurkezteko derrigortasunik ez izateari buruz Foru Ogasunek emandako ziurtagiria (eskaera aurkezteko unean betetako azken zerga ekitaldia).
 - Besteen kontura lan egiten duten langileen kasuan, kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrera gordin guztiei buruzko dokumentua, enplegu emaleak emandakoa.
 - Pentsioak edo beka, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenen kasuan (Gizarte Ongizateko laguntza barne), ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.
- Bermeoko Udalarekin egunean dagoela egiaztatzea. (Bermeoko Udalak egiaztatuko du)
 - Beste diru sarrera batzuk badaudela eta/edo beste erakundeetan diru-laguntza eskatu dutela adierazten duen zinpeko aitorpena (zenbatekoa adierazita), besteak beste, EPOren onuraduna denean (Etxebizitzarako Prestazio Osagarria), eta Bermeoko Gizarte Larrialdietarako diru-laguntzak jasotzen dituenen.

Programako gehienezko diru-laguntza:

- 1.- Hileko alokairu prezioaren %50a izango da, gehienez 200,00€/hilero.
- 2.- Deialdi honen kontura jaso daitekeen diru-laguntza 2017urteko errentari dagokiona izango da.
- 3.- Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa zehazteko azpiko taulako datuak erabiliko dira:

| <i>Eskatzailea</i> | <i>Diru sarrera gordinak</i> | <i>Alokairuaren %</i> | <i>Gehienezko laguntza pisu bakoitzeko (*)</i> |
|-----------------------------|------------------------------|-----------------------|--|
| NORBANAKOA | 25.000,01/28.000,00 | %20 | 80,00€ |
| | 22.000,01/25.000,00 | %30 | 120,00€ |
| | 20.000,01/22.000,00 | %40 | 160,00€ |
| | 0/20.000,00 | %50 | 200,00€ |
| BIZIKIDETZA UNITATEA | 33.000,01/39.000,00 | %20 | 80,00€ |
| | 30.000,01/33.000,00 | %30 | 120,00€ |
| | 26.000,01/30.000,00 | %40 | 160,00€ |
| | 0/26.000,00 | %50 | 200,00€ |

(*) *Pisukideen arteko harreman ekonomikorik ez dagoenean, guztien artean ezin izango dute pisuko gehienezko diru-laguntza gainditu, eta kasu horretan diru-laguntza proportzionalki murriztuko da gehienezko kopurua egokitzeko.*

Diru-laguntza ordaintzea:

Diru-laguntza ez da ordainduko eskatzaileak beste diru-laguntzaren bat justifikatu barik badauka eta justifikatzeko epea amaituta badago.

Aurrekoetan aipatutako diru-laguntza baten diru-kopurua atzera itzultzeko eskatuta badago eta itzuli barik, orduan ere ez zaio ordainduko.



Beste kasu guztietan ordainketa onartuta agertzen den datatik hilabeteko epean ordainduko da, hilerero.

Diru-laguntzaren onuradunen betebeharrak:

- Oinarri berezi hauetako arauak betetzea.
- Hiru hileroko alokairu kontratuaren baitan egindako hileko ordainketa agiriak aurkeztea: alokairuaren faktura edo jaso izanaren agiria, gehi ordainagiria.
- Onuradunak bete beharreko baldintzetan ("eskatzailleak" puntuan agertzen direnak) laguntza eskatu zenetik aldaketaren bat egon bada, beharrezko dokumentazioa aurkeztea.
- Azken ordainketa gauzatu aurretik, onuradunek aurkeztu beharko dituzte bizikidetzaren unitateko kide guztien 2017ko diru sarreraren egiaztagiri eguneratuak ("aurkeztu beharreko dokumentuen" azken puntukoak).

**ERLACIONATUTAKO
AGIRIAK: BESTE DIRU-
LAGUNTZA BATZUEKIN
BATERAGARRITASUNA**

- Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak, helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarriak dira, beti ere diru-laguntza guztien artean gehienezko kopurura heltzen ez denean.
- Laguntza horien eskatzaile gisa, bereziki baztertuta daude Bizigune Programaren bitartez, edo antzeko beste edozein programaren bitartez etxebizitza alokatuta duten gazteak.

Salbuespen moduan: Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira gizarte bazterketa eta muturreko beharrak leuntzeko emandako bakarkako diru-laguntzen onuradun izan daitezkeen gazteak, eta Etxebizitzako Prestazio Osagarria jasotzen dutenak.